



2012
2013



"Poesia tanta bat egunean"



agenda



"Poesia tanta bat egunean"

Lanak eta planak apuntatzeko erabiltzen ei nauzu.

Zeure buruarekin berba egiten ere laguntzen ei dizut.

Beraz, aurten,

gauza berri bat proposatu nahi dizut.

Zer?

Egunean poesia tanta bat.

Beharrekin batera amets egiten jarraitzeko,

ilargi amandreari ere kasu egiteko,

segundo bakoitza ahalik koloretsuen imajinatzeko...

...tik, tak,

pol, pol,

tank, tank...

Poesia tanta bat egunean.



nire datuak



Izena:

Abizenak:

.....

Helbidea:

.....

.....


Herria:

.....

Telefona:

Ikastetxea:

Maila:





moztu

irudi zoragarri hau puntutxoetatik

Alde bietatik plastifikatu eta goiko aldean egiozu zulotxo bat.
Hari bat sartu zulotik eta lotu agendarekin. **Markatzaile aparta izango duzu!**



ordutegia

[illegible]

egutegia 2012



jaiak

- Balmaseda ●
- Bermeo ●
- Etxebarría ●
- Enkarterri ●

Artzentales, Galdames, Gordexola,
Gueñes, Karrantza Harana, Lanestosa,
Sopuerta, Turtzioz, Zalla

01. urtarrila

					1	
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

02. otsaila zezeila

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29				

03. martxo

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

04. apirila

					1	
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

05. maiatza

		1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13	
14	15	16	17	18	19	20	
21	22	23	24	25	26	27	
28	29	30	31				

06. ekaina bagila

					1	2	3
4	5	6	7	8	9	10	
11	12	13	14	15	16	17	
18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30		

07. uztaila garagarila

					1	
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

08. abuztua

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

09. iraila

					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

10. urria

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

11. azaroa zemendia

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

12. abendua

					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

-  Elorrio
-  Erandio
-  Mundaka
-  Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz
-  Muskiz
-  Muxika
-  Ortuella
-  Zierbena

egutegia 2013

01. urtarrila

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

otsaila 02. zezeila

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28			

martxoa 03. martia

					1	2	3
4	5	6	7	8	9	10	
11	12	13	14	15	16	17	
18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30	31	

04. apirila

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

05. maiatza

				1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12		
13	14	15	16	17	18	19		
20	21	22	23	24	25	26		
27	28	29	30	31				

ekaina 06. bagila

						1	2
3	4	5	6	7	8	9	
10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	
24	25	26	27	28	29	30	

uztaila 07. garagarila

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

08. abuztua

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

09. iraila

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

10. urria

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

azaroa 11. zemendia

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

12.abendua

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

09 iraila

Mareak

Itsasoaren uhinak gora,
oroitzapenak datozkit gogora;
itsasoaren uhinak behera,
badoazkit oroitzapenak,
biluzik,
itsasora.

Pupuan trapua. Xabier Olaso.
PAMIELA, 2004



Irailaren jatorria iratze berbatik dator, sasoi honetan landare hau bere onenean dagoenez, kortan abereentzako azpia egiteko batzen da. Jakina, hau lehorrean gertatzen da.

Itsasoari dagokionez, marea biziak izaten dira irailean.

Baina, noiz esaten dugu marea goian dagoela? Noiz esaten dugu marea behean dagoela? Zer gertatzen da olatuekin? Iretargiak badu eraginik itsasoan?

Galdetu gurasoei edota irakasleei eta haiekin batera berrosatu, zeure erara, hilabete honetako olerkia:

Mareak

Itsasoaren uhinak gora,
..... gogora
itsasoaren uhinak beheara,
.....
.....
.....



09
iraila



27	28	29	30	31	1	2
3	4	5	6	7	8*	9
10	11	12	13	14	15	16*
17	18	19	20	21	22*	23
24	25	26	27	28	29	30*

3

Astelehena

Zirri-marran olatuak,
katean ondo lotu txalupak.

4

Martitzena

Belaontzi zinen
nire txikitako itsasoan.

J. Ormazabal

5

Eguaztena

Baietz zu liluratu
olatuen bitsak!

M.A. Meabe

6

Eguena

Itsasoan urak gazi
ez da ondorik ageri.

7

Barikua

Itsasoan urak handi,
probatuta gaude ongi.

8

Zapatua

Besapeetan
bi ilbehera:
hegan noa.

J. K. Igerabide

ilbehera



Bermeoko jaiak

9

Domeka

Zilar zurizko arrainen artean,
zu urrezko itsas zaldia.

M.A. Meabe



27	28	29	30	31	1	2
3	4	5	6	7	8°	9
10	11	12	13	14	15	16°
17	18	19	20	21	22°	23
24	25	26	27	28	29	30°

10

Astelehena

Itsasoko olatuek
hondartza jaten duten bezala,
halaxe jan nau zure laztanak
eta dardarka utzi dit azala.

J. K. Igerabide

11

Martitzena

Zerua haserre
haserre itsasoa
muturreko bat, eta ekaitza.
A.Urkiza

12

Eguaztena

Ekaitz ostean barealdi.

13
Eguena

Ederra da
urrea urdinaren gainean
A. Kazabon

14
Barikua

Artzentalesko jaiak



Urak zirrimarran,
errekako basak dantzan.

15
Zapatua

Ez zen olatuen ukaldia
harkaitzen kontra.
M.A. Meabe

16
Domeka

● iretargi barria

Ilun-korromorrotu dago gaua.



27	28	29	30	31	1	2
3	4	5	6	7	8°	9
10	11	12	13	14	15	16°
17	18	19	20	21	22°	23
24	25	26	27	28	29	30°

17

Astelehena

Itsasontzia kulunkan
itsasoa kulunkari.

A. Kazabon

18

Martitzena

Uholde handienak ere
itsasoan baretzen dira.



Karrantza Haranako jaiak

19

Eguaztena

Noan alai igeri,
bazter bakoitza berri,
goiz bakoitza mirari.

A. Kazabon

20
Eguena

Kalatxoriak begira-begira neuzkan
zure marrazkia hondartzan egin nuenean.

M.A. Meabe

21
Barikua

Euri putzuak udazkenean,
txantxangorriak edanean:
tapatzera noa guardasolpean.

J.K. Igerabide

UDAZKENA



ilgora

22
Zapatua

Nor dela eta nor da,
handia izanik ere,
itsasertzean galdurik dagoena?

J.M. Olaizola, Txiliku

23
Domeka

Olatua etorri eta joan.
Kalatxoriak musuzapi zuriak harkaitzetan.

M.A. Meabe



27	28	29	30	31	1	2
3	4	5	6	7	8°	9
10	11	12	13	14	15	16°
17	18	19	20	21	22°	23
24	25	26	27	28	29	30°

24

Astelehena

Urteak etorri urteak joan,
urak pilatzen itsasoan.

25

Martitzena

Olatuen zipriztinak
nire bihotzeko minak.

A. Kazabon

26

Eguaztena

Gordexolako jaiak



Itsasondoan,
maskor bat bildu zenuen zuk eta neuri eman.

M.A. Meabe

27
Eguena

Eta zu
ur gardenetan oinutsik.
Zeruko izar.
A. Kazabon

28
Barikua

Urrutitik maite zaitut
argiak ez nazan erre
itsasoak ez nazan ito.

J. Ormazabal

29
Zapatua

Bentana bat egin behar dut
itsasoaren partean,
handixik ikusteko
neure maitea doanean.

30
Domeka

☐ iretargi betea

Lo dago ilargia
horma ondoko putzuan:
bide luzea egin du zeruan.


J.K. Igerabide

10. urria

Zurru-murru

Zurru-murru
firin-faran
zuhaitzak oker
hostoak hegan
kristalak klink
ateak klank
aitonari txapela
haizeak eraman.

Urrezko giltza. Patxi Zubizarreta.
EREIN, 2005



Hilabete honekin amaitzen da baserritarrentzako nekazal urtea. Beraz, batzuen ustez, urri hila izango litzateke, hau da, hilabete eskasa. Baina, azterketarik zuzenenek orrien hilabetearekin lotzen dute, hau da, zuhaitzetatik orriak jausten direneko hilabetearekin. Eta haizeak laguntzen du horretan, ezta?

Hala bada, badakigu haizeak *firin-faran* egiten duela eta zuhaitzek *zurrur-murru*. Badakigu kristalak *klink* eta atak *klank* egiten dutela haizeak ematean.

Baina, olerki honi dagokionez, zelan egingo luke aitona batek haizeak as-tinduko balu? Zer esango luke, haizeak txapela eroango balio?

Erakutsi egoera hori bost biñetatan, irudiak eta hitzak elkar lotuz:

- 1 Zurru-murru, firin-faran
- 2 Zuhaitzak oker, hostoak hegan
- 3 Kristalak klink, atak klank
- 4 Aitonari txapela, haizeak eraman
- 5 AMAIERA



10. urria

1	2	3	4	5	6	7
8°	9	10	11	12	13	14
15°	16	17	18	19	20	21
22°	23	24	25	26	27	28
29°	30	31	1	2	3	4

1

Astelehena

Ez baita eremu aldendurik,
haizea sartu ezin daitekeenik.

2

Martitzena

Udazkenero bezala, hostoak
elkarren gainean,
euriak minik har ez dezan
lur bigunean.

J.K. Igerabide

3

Eguaztena

Aukerak ugari,
egokierak urri.

4

Eguena

Maite zaitut, aizu,
ez izan izu:
hostoak lurrari musu.

R. Ruiz

5

Barikua

Noiz zen?

Noiz zen?

Gaztainak jaulkitzen,

usoak pasatzen,

txantxangorri bat kantuan ari zen...

6

Zapatua

Urria,
usoen galgarria.

7

Domeka

Batean erori, bestean jaiki,
bitartean ez dabil gaizki.

1	2	3	4	5	6	7
8°	9	10	11	12	13	14
15°	16	17	18	19	20	21
22°	23	24	25	26	27	28
29°	30	31	1	2	3	4

8

Astelehena

Ilbeheran egonaz,
ez ezak erein inolaz.

ilbehera



Zallako jaiak

9

Martitzena

Udazkeneko haize horixka:
nire oinetan orbelaren fereka.

M.A. Meabe

10

Eguaztena

Bart haize zitala,
biluztu da makala,
oso dago argala.

R. Ruiz

11

Eguena

Urria urri,
ilunabarretan igarri.

12

Barikua

Utzi pasatzen
haizeari
gogor jotzen duenean.

J. Ormazabal

13

Zapatua

Udazken lerden:
hiru tanta garden.

X. Olaso

14

Domeka

Ezta deskantsurik,
ezpada nekerik.

1	2	3	4	5	6	7
8°	9	10	11	12	13	14
15°	16	17	18	19	20	21
22°	23	24	25	26	27	28
29°	30	31	1	2	3	4

15

Astelehena

● iretargi barria

Urriko ilberrin,
elurre Aizkorrin.

16

Martitzena

Aizkolariek
zuhaitza bota dute:
hostoak euri.

J.K. Igerabide

17

Eguaztena

Urria, larria,
erori da orria,
hostoz bete da hiria.

Y. Arrieta

18

Eguena

Lorerik ederrenak be
zimeldu.

19

Barikua

Urria, larria,
urtu da eguzkia,
biluztu da hariztia.

Y. Arrieta

20

Zapatua

Festak aurrea ederragoa du,
atzea baino.

21

Domeka

Hostoak lurrera,
garia lurrera.

1	2	3	4	5	6	7
8°	9	10	11	12	13	14
15°	16	17	18	19	20	21
22°	23	24	25	26	27	28
29°	30	31	1	2	3	4

22

Astelehena

ilgora

Ilargiaren atzean

ezkutaturik

hodei lotsatia.

J.K. Igerabide



Balmasedako jaiak

23

Martitzena

Firin firain
hostoak sustrai.

Pello Añorga

24

Eguaztena

Zeruan letra bat,

antzarak airean,

Afrikarako bidean.

R. Ruiz



Orbelak orbelari musu
lurraren gainean.

J. Ormazabal



Urria, larria,
lotara doa txori berria.

Y. Arrieta



Udazkena galtzetan:
ikastolan orbelak,
biluzik,
laztan isiletan.

X. Olaso



San Simon eta San Juda
uda joan eta negua heldu da.



11 zemendia azaroa-hazila

Atea kax-kax
atea kox-kox
argia joandakoan
zertara zatoz?

Anpolai gorriak.
Antton Kazabon.
IBAIZABAL, 2005


Hilabete hau haziarekin
lotuta dago. Horregatik
deitzen zaio *azaroa* (hazi aroa)
edota *hazila*, izan ere, hilabete
honetan ereiten da lurra, gero udan uzta lortzeko.

Hilabete honen beste ezaugarri bat? Argia galtzea.

Zemendian edo azaroan argia galtzen ari gara, etengabe, badirudi eguz-
kiak lurrarekin lotzeko duen kablea eten egiten dela.

Baina, orduan, nora joaten da argia zemendian edo azaroan?

- **Imajinatu haur txiki bati azaldu behar diozula
ipuin baten bidez.**



11 zemendia azaroa-hazila

29°	30	31	1	2	3	4
5	6	7°	8	9	10	11
12	13°	14	15	16	17	18
19	20°	21	22	23	24	25
26	27	28°	29	30	1	2

☐ iretargi betea



Muxikako **jaiak**

Patinetearekin
ilargiaren atzetik noa
putzuz putzu.

J.K. Igerabide

30
Martitzena

Urriko azken eltxo zurbil,
umil eta trauskil
dantza eroan ibili eta horman hil.

Lutxo Egia

31
Eguaztena


Urriaren azkenean,
gaztaina etxean.



Orri erortze,
gari ereite.



Azaroa azaro,
egin eta itxaro.



Azaroko eguna,
argitu orduko iluna.



Hegaldatu da usoa,
hasi da lausoa,
hankaz gora auzoa.

R. Ruiz



29°	30	31	1	2	3	4
5	6	7°	8	9	10	11
12	13°	14	15	16	17	18
19	20°	21	22	23	24	25
26	27	28°	29	30	1	2

5

Astelehena

Azaroa hotz, negua motz;
azaroa bero, negua gero.

6

Martitzena

Saguxar Zahar, Saguxar Zahar,
argia eraman eta iluna ekar.

P. Añorga

7

Eguaztena

● ilbehera

Zilarrezko zintzilikarioa
gaupasan.

8

Eguena

Hori eguzki zuria!
Horrek laster ekarriko du euria!

9

Barikua

Danba danbor, gaua dator.

Badator,

badoa.

P. Añorga

10

Zapatua

Bostak eta iluna,
txerria hiltzeko eguna

11

Domeka

San Martin, negua atzetik edo aurretik,
gehienetan bietatik.

11 zemendia azaroa-hazila



29°	30	31	1	2	3	4
5	6	7°	8	9	10	11
12	13°	14	15	16	17	18
19	20°	21	22	23	24	25
26	27	28°	29	30	1	2

12

Astelehena

Nik zu zaitut maiteago,
ilun beltzak loa baino.

● iretargi barria

13

Martitzena

Zeruan izar,
lurrean belar,
sorgin hau bedi
lotarik itzar!
P. Zubizarreta

14

Eguaztena

Iparra dagoenean,
jaka soinean.

15

Eguena

Haizea, gorputza arrastaka duela,
aterik ate dabil gau ilunean.

J.K. Igerabide

16

Barikua

Azaroa, hazi aroa,
etxea nahi du harrak,
amatxo epela txepetx argalak.

Y. Arrieta

17

Zapatua

Azaroa loitsu,
urtea garitsu.

18

Domeka

Azaroa, hazi aroa,
negu usaina zuhaitz adarrak,
haran larua mendi iharrak.

Y. Arrieta



29°	30	31	1	2	3	4
5	6	7°	8	9	10	11
12	13°	14	15	16	17	18
19	20°	21	22	23	24	25
26	27	28°	29	30	1	2

19

Astelehena

Argindar, argindar
gauaren erdian, ilunak izar.

ilgora

20

Martitzena

Zilarrezko igitaia,
gauaren dirdaia,
erantzun zuzena
igartzen saia.

21

Eguaztena

Azaroa, hazi aroa,
badaroa negu narrasak.

Y. Arrieta

22

Eguena

Zu nora, ni hara,
galdetu gabe zertara.

M.A. Meabe

23

Barikua

Eta lamina guztiak
gau beltzean aienatu ziren
alde guztietarantz.

Kirikiño

24

Zapatua

Izar ederrak argi egiten du
zeru altuan
bakarrik.

25

Domeka

Begira nago begira
goiko kamino berrira
noiz etorriko ote den
neure maitea herrira.



29°	30	31	1	2	3	4
5	6	7°	8	9	10	11
12	13°	14	15	16	17	18
19	20°	21	22	23	24	25
26	27	28°	29	30	1	2

26

Astelehena

Ahozko lorez zaitut
gaur laztantzen.

27

Martitzena

Esadazu berba alai bat,
ez nadin zimeldu.

M.A. Meabe

28

Eguaztena

☐ iretargi betea

Gazta osoa edo zatia,
gau beltzean bera zuria.

29
Eguena

Gau eta egun nago itzarrik
inon ote den izarrik.

30
Barikua

San Andres,
goizean azaroa, arratsean ez.

Etxebarriko **jaiak**



1
Zapatua

Abenduko eguna,
argitu orduko iluna.

2
Domeka

Abenduaren erdia gaua
eta beste erdia festa.

12 abendua

Bai baitator
urrundik
Gabonetarako
seme zaharra: bidean
elurpe du oro;
etxeke sutondoan
bizkortu ezkeru,
ikus haren ezpainen
barre antza gozo!

Izotz-ondoko eguzki.
Xabier Lizardi



Hilabete hau gabonekin lotuta dago.

Hala ere, badira hilabete hau izendatzeko beste era batzuk: hotzaroa (hotzaren aroa), edo lotazila, lo dagoen hilabetea edo hazia lo dagoen sasoia.

Baina abendua hasteaz bat, lehen eta orain, denoi bururatzen zaigu gauza bera: Aiba! Gainean ditugu Gabonak!

Osatuko zenuke Xabier Lizardiren poemako protagonistaren biografia? Jakina, zoaz pausoz pauso, pistei tira eginez:

- 1** Seme zaharra urrundik dator Gabonetarako. Zenbat urte ditu? Zenbat neba-arreba? Zer adinetakoak?
- 2** Urrundik dator, baina, zehatz-mehatz, nondik? Zer egiten du leku horretan? Non bizi da? Norekin? Noiztik ez da etorri etxera? Zergatik dator Gabonetarako?
- 3** Bidean elurpe du oro. Deskriba ezazu bide hori, zenbat elur dagoen, zer oztopo sortarazten duen elur horrek mutil horren bidaian.





12 abendua

26°	27	28	29	30	1	2
3	4	5	6°	7	8	9
10	11	12	13°	14	15	16
17	18	19	20°	21	22	23
24	25	26	27	28°	29	30
31						

3

Astelehena

Zazpi letra leihoan,
egunsentiaren zain:
euskara.

Euskararen
eguna

4

Martitzena

Abenduko izarrak
atzetik laster dakartza
elur edo kazkabarra.

5

Eguaztena

Eguzki zuriaren ondoren,
laino beltzak.



Nahiago nuke aukeran
ilargirako mikrobusa hartu ilbeheran.

G. Rodari



Elurretan jaio eta
izotzetan bataiatu.



Abenduko lainoak
hegoa edo elurra.



Hotz jokatzan dut urrutitik,
babes bila, defentsan,
ez nadin ahul azaldu, tristeegi.

J. Benito



26°	27	28	29	30	1	2
3	4	5	6°	7	8	9
10	11	12	13°	14	15	16
17	18	19	20°	21	22	23
24	25	26	27	28°	29	30
31						



lhintza gaineko hegoa,
gauerako hodeia.



Kalefakzioa amaitu da.

Eta ez duzu konpondu behar, aita?

Amaitu da, ez dago,

beste gauza asko ez dauden bezala.

J. R. Madariaga



Abenduko elurrak
hortz luzeak ditu.

13

Eguena

Utzi bidea ameslariei,
hala Ilargian, nola Lurrean.

G. Rodari

14

Barikua

Ez aditzeko nahi ez duzunik,
ez galdetu behar ez denik.

15

Zapatua

Egin aurrez adiskideak
premia orduetarako.

B.A. Mogel

16

Domeka

Zimbaweko ume askok ez dute urik.
Birmaniakoek ez dute zapatarik.
Haitikoek ez dute esnea inoiz probatu.
Afganistangoek belarra jaten dute neguan.

J. R. Madariaga

26°	27	28	29	30	1	2
3	4	5	6°	7	8	9
10	11	12	13°	14	15	16
17	18	19	20°	21	22	23
24	25	26	27	28°	29	30
31						

17 Astelehena

Asko dezake eskuak
baina gehiago buruak.
Garaituko duzu ezin egina
baldin bazara asko jakina.

B.A. Mogel

18 Martitzena

Asmoak handi
ezinaren lautada zabalean...

A. Urkiza

19 Eguaztena

Agur,
ekarri lepo bete egur.

20
Eguena

Ez inoiz burua goratu gehiegi
eroria izan ez zaitezen behe regi.

B.A. Mogel

21
Barikua

San Tomas eguna,
argitu orduko iluna.



NEGUA

22
Zapatua

Haurdun dago mundua
neguko isiltasunean.

J. Ormazabal

23
Domeka

Lagun jakitunari jarraitu,
bere hitz onak pozik hartu.

B.A. Mogel



26 °	27	28	29	30	1	2
3	4	5	6 °	7	8	9
10	11	12	13 °	14	15	16
17	18	19	20 °	21	22	23
24	25	26	27	28 °	29	30
31						



Tripandi kaskarina,
lanbidez ikazkina;
nor dela eta nor dela,
pipa hortzean duena?

.....

.....

.....

.....



Gabon, bonbon;
Natibitate, ase eta bete;
San Estebantxe, bestetan letxe.



Entzun erantzun,
entzun erantzun,
barnean kanpoan
hitzak oihartzun.

P. Añorga

27
Eguena

Elurraren izara erori da
zintzilik zegoen kableetatik
eta dena estali du.

J.R. Madariaga

28
Barikua

○ iretargi betea

Inuxente, potente,
txakurran buztana tente.

29
Zapatua

Abendu zuri,
ez ardi eta ez axuri.

30
Domeka

Edertasuna da egun laburrekoa;
jakituria bizitza guzirakoa.

B.A. Mogel

01 urtarrila

izotzila-ilbeltza

Iluntasunean

Gaua etxe barrura
sartu da.
Lapurrak ipurtargia
ekarri du
iluna izutu nahian.

Kalezuloko animalien itzalak.

Lutxo Egia.
PAMIELA, 1999



Hilabete honen esanahia "urte" eta "hil" berbetan daukagu, hau da, "urtarrila = urteko hila", urteak dakarren lehenengo hilabetea.

Dena dela, Izotzila edo Ilbeltza izena ere eman diote leku askotan.

Guk azkenaren esanahiarekin jokatu nahi izan dugu, izan ere, urtarila benetan hilabete beltza dugulako zentzu askotan: lurra beltz dago, ez da goelako ez belarrik, ez lorerik ezta baratzerik; bestalde, eguna ere nahiko beltz daukagu, oraindik gauak oso luzeak direlako. Ematen du, "gaua etxe barrura" sartu dela, ezta?

Baina iluntasunak ere badu bere alde ona: kanpoko begiekin ikusi ezin duguna barrukoekin ikusten dugulako, hau da, irudimenekoekin.

Hala bada, barruko begi gordeak erabiliz gaurko poemaren bi momentuak komiki bihurtuko ditugu, istorio batean integratuta. Hara hemen pista batzuk:

- 1** *"Gaua etxe barrura sartu da"*
Nondik? Nola? Zertarako?
- 2** *"Lapurrak ipurtargia ekarri du iluna izutu nahian"*
Nolakoa da lapurra?
Zeri dio beldur?
Non dakar ipurtargia?
Ipurtargia ados dago eman dioten zereginarekin?
- 3** *Zer esaten dio Gauak Lapurrari edota Lapurrak Gauari?*



01 urtarrila

izotzila-ilbeltza



31	1	2	3	4	5°	6
7	8	9	10	11 •	12	13
14	15	16	17	18°	19	20
21	22	23	24	25	26	27°
28	29	30	31	1	2	3

31

Astelehena

Zaharrari, adioa;
jaioberriari, ongietorria.
Zaharra baino urtetsuagoa
izaten da jaioberria.
Nola ote hori?

J.K. Igerabide

1

Martitzena

Urte barri-barri,
txarri belarri,
daukanak ez daukanari
altzo bete madari
edo, bestela,
katilu bete gari.

Urte barri

2

Eguaztena

Gaua erantzten ari da
pijama beltz hori:
eguna du izena orain.

J. K. Igerabide

3

Eguena

Tik tak...

Tik tak...

Gau eta egun

aurrera doaz

denboraren hankak.

J. Ormazabal

4

Barikua

Lurrean trotean

zabal kazkabar.

P. Añorga

5

Zapatua

ilbehera

Ilargi amandrea, zeruan zer berri?

Zeruan berri onak, orain eta beti.

6

Domeka

Erregeak datoz

Jesus adoratzen.

Gu ere hemen gatoz

limosna batzen.



31	1	2	3	4	5°	6
7	8	9	10	11 •	12	13
14	15	16	17	18°	19	20
21	22	23	24	25	26	27°
28	29	30	31	1	2	3

7

Astelehena

—Ai, ai, ai,
astegun guztiak balira jail!
—Alferrak horixe nahi!

8

Martitzena

Gauaren kolko ilunean,
hontza uluka-ahaleginetan.

9

Eguaztena

—Euria, euria,
aitona bizar zuria.
—Kalera irten eta
txapela busti-bustia.

10
Eguena

—Elurra, elurra,
aitona bizkar makurra.
—Oihanera joan eta
elurpean egurra.

11
Barikua

● iretargi barria

Gaurik luzeenak be
egunsentian amaia.

12
Zapatua

Egin, egin euria
bada etxean garia.

13
Domeka

Egin, egin txingorra
bada etxean txingarra.



31	1	2	3	4	5°	6
7	8	9	10	11°	12	13
14	15	16	17	18°	19	20
21	22	23	24	25	26	27°
28	29	30	31	1	2	3

14

Astelehena

Egin, egin elurra
bada etxean egurra.

15

Martitzena

Elur, melur,
ez naiz zure beldur,
etxean badaukat
palomita eta egur.

16

Eguaztena

Kalean ilun eta hotz,
zerutik kazkabarra:
perla txuriak barra-barra.

R. Ruiz

17
Eguena

—Ez esan, bai esan,
ez dakit zer esan.

18
Barikua

ilgora

Farolak argia ostu dio
iretargiari:
gaua ez da hain beltza, orain.

19
Zapatua

Bi begik baino gehiago ikusten dute
lauk.

20
Domeka

Elurtxo zuri-arina
gari-irinez egina.
X. Olaso



31	1	2	3	4	5°	6
7	8	9	10	11 •	12	13
14	15	16	17	18°	19	20
21	22	23	24	25	26	27°
28	29	30	31	1	2	3

21

Astelehena

Gauetz txikia da bat
Iluntasunean.

22

Martitzena

Mendi magalean
elur maluta:
bertan ardia galduta.
R. Ruiz

23

Eguaztena

Urtarrileko hotza,
neguaren bihotza.

24

Eguena

Zenbat eta handiago,
orduan eta gutxiago ikusten da.

Zer da?

(Iluntasuna)

25

Barikua

Itsua triste bat nauzu,
eske nabil atez ate.
Nitaz erruki zaitetz.

26

Zapatua

Hona egia, andere gaixoa:
ez naiz batere itsu,
baina itsutuki zaitut maite,
eta ezkontza zuri eskatzeko
honaino heldu naiz eskale.

27

Domeka

Zer dela eta zer dela,
zeru erdian dagoena,
zer dela eta zer dela,
gauez argia ematen duena.

☐ iretargi betea



31	1	2	3	4	5°	6
7	8	9	10	11 •	12	13
14	15	16	17	18°	19	20
21	22	23	24	25	26	27°
28	29	30	31	1	2	3°

28

Astelehena

Mara-mara elurra.

Izarren izaran beroa lurra.

P. Añorga

29

Martitzena

Ilbeltzeko hotzak

leizera daramatza hartzak.

30

Eguaztena

Ilbeltzak zuriz

jantzi ditu mendiak.

Negu gorria.

J. Ormazabal

31

Eguena

Agur, Urtarril,
agur, Ilbeltz,
agur, Izotzil.
Musu handi bat
denon partetik,
eta datorren
urtera arte!

1

Barikua

Otsaila,
firili faraila.

2

Zapatua

Katua falta,
saguak dantza.

3

Domeka

● ilbehera

—Domina dominatua:
hil da Martaren katua!
—Egin du testamentua?
—Lau hanka eta burua.
—Domina dominatorum,
katu jana egin dagigun!

02 zezeila otsaila

Katua

Kotxe azpian sartuta daude
bi itxaropen argi
begi berde bi.

Nire hiriko poemak.

Ana Urkiza.

PAMIELA, 2006



Otsaila edo zezeila hilabeterik laburrena dugu lau urtetik lau urtera egun bat gehiago sartuta ere.

Eguraldi eskasa zela eta hotzaren eraginez otsoak bailara eta herrietara jaisten zirelako, hortik hartuko luke izena urteko bigarren hilabete honek.

Izanak izan, "Kataila" ere deitu izan zaio eta horrexegatik hautatu dugu Ana Urkizaren poematxo hau.

Zer egin dezakegu berarekin? Ba, adibidez, testua komentatu, ahoz zein idatziz, eta, ondoren, egoera irudikatu, marrazki edo antzerki baten bidez:

- 1** Nolakoa da auto azpian dagoen katu hori? Zelako begiak dauzka? Txikia ala handia da? Bere etxetik gertu ala urrun dago? Zergatik sartu da auto azpian? Zeri itxaroten dago?
- 2** Marraztu auto azpian sartuta, itxaropentsu, dagoen katu begi berde hori.
- 3** Jarri titulu bat zure marrazkiari.
- 4** Jarraitu titulu horri istorio batekin.



02. zezeila otsaila



28	29	30	31	1	2	3°
4	5	6	7	8	9	10°
11	12	13	14	15	16	17°
18	19	20	21	22	23	24
25°	26	27	28	1	2	3

4

Astelehena

Aintzaildu daigun Agate deuna,
bihar da, ba, deun Agate;
etxe honetan zorion hutsa
betiko eukiko al dabe.

Agate
deuna
bezpera

5

Martitzena

Txalo pin txalo
txalo ta txalo,
katutxua mizpira
gainean dago.

6

Eguaztena

Katu maukaria,
ez da ehiztaria.

.....

.....

.....

.....



Nik losintxa katuari,
katuak bere buztanari.



.....

.....

.....

Kiku, kiku, kaikua,
lotan dago katua.

J.K. Igerabide

.....

.....

.....



Kiku, kiku, lapurra,
lotan dago txakurra.

J.K. Igerabide



.....

● iretargi barria

.....

Kiku, kiku, ilargi:
lo daudenen zaindari.

J.K. Igerabide

.....



28	29	30	31	1	2	3°
4	5	6	7	8	9	10°
11	12	13	14	15	16	17°
18	19	20	21	22	23	24
25°	26	27	28	1	2	3

11

Astelehena

Otsailean,
katuak be arrain eskean.

12

Martitzena

—Miau, miau, katu zuri goiztiarra:
zer nahi duzu gosari?

—Ontzi esne eta gaileta bi.

J.K. Igerabide

13

Eguaztena

Ttiriki-ttarraka
katua begira,
kobazulotik at
gauaren pilpira.

X. Olaso

14

Eguena

Otsailtxo laburrean,
katarrak gau-lapurrean.

15

Barikua

—Uau, uau, zakur beltz zakarra:
zer nahi duzu gosari?

—Hor dagoen katu hori!

J.K. Igerabide

16

Zapatua

Gautu egin du errepidean.
Katua auto azpira makurtu da
gurpila aldatzeko asmotan.

17

Domeka

● ilgora

Eta bihar, ilargi-hondarrak almohadan utzita,
berriz elkartuko gara eskolan.

M. A. Meabe



28	29	30	31	1	2	3°
4	5	6	7	8	9	10°
11	12	13	14	15	16	17°
18	19	20	21	22	23	24
25°	26	27	28	1	2	3

18

Astelehena

Katua aurpegia garbitzen ari bada,
euria laster.

R. M. Azkue

19

Martitzena

Hamar,
katuak mar-mar.

20

Eguaztena

Ipar haizeak elurra,
otsoak ere beldurra.

J. K. Igerabide

21

Eguena

—Bene-benetan?

—Katua eta sagua berbetan.

A. Lertxundi

22

Barikua

—Egi-egia?

—Saguak katuaren belarrian habia.

A. Lertxundi

23

Zapatua

—Serio-serio?

—Katuak saguari musu eman dio.

A. Lertxundi

24

Domeka

Ametza gogoaren igande.



28	29	30	31	1	2	3°
4	5	6	7	8	9	10°
11	12	13	14	15	16	17°
18	19	20	21	22	23	24
25°	26	27	28	1	2	3

25

Astelehena

☐ iretargi betea

Otsaileko ilbete,
elurra hi bete.

26

Martitzena

Gerorako gordea,
katuak jaten, ordea.

27

Eguaztena

Lau hanka baina ilerik ez.
baina miaurik ez. Katua ez banaiz
Bibote bi zer ote naiz ni?
baina marraorik ez. Y. Arrieta
Buztan beltza

28
Eguena

Gelditzea azken,
inoiz aurrerapen.

1
Barikua

Hegoak ebaki banizkio
nirea izango zen,
ez zuen alde egingo.

J.A. Artze

2
Zapatua

Baina horrela ez zen
gehiago txoria izango.
Eta nik txoria nuen maite.

J.A. Artze

3
Domeka

Martxoak maiatzten badu,
maiatzak martxotzen du.



03 martia martxo

Okil handia basoan
moko txikiaz mintza,
toko-toko-toko-tok
pagoan danbor-hotsa.

Hotsateko basoa.
Xabier Olaso.
AIZKORRI, 2005

Erromatarrek hilabete hau Marte gerraren jaungoikoari eskaintzen zioten. Hortik bere izena.

Bizkaieraz sasoi batean erabiltzen zen Epaila berbak, berriz, epai = ebai (ebagi) sasoi honetan zuhaitzei egiten zaien inausketa dakarkigu gogora.

Baina guk txoriak omendu nahi izan ditugu hilabete honetan, udaberria gainean dugula aldarrikatuz.

1 Hotsak idazteko onomatopeiak erabiltzen ditugu. Hemen dituzu batzuk, esanahi eta guzti. Arretaz irakurri:

POL-POL iturriko ura
KOX-KOX ate joka ari da
KAR-KAR barre egin diot
KRIS-KRAS atea ireki da
bat-batean DI-DA sartu da
FIR-FIR hostoen marmarra entzun da
TXOR-TXOR txepetxen elkarriketa
GLU-GLU ura edaten hasi dira
TXIO-TXIO txoriak txio egin du
KU-KU kukuak ku-ku
ZIRT-ZART DI-DA bezalakoa da
adarñoa KRIK! apurtu da.

2 Eseri lurrean, biribilean, eta txandaka atera bat erdira onomatopeia ozenki esan eta keinuz laguntzera.

3 Binaka jarrita, asmatu lau lerroko poemak onomatopeia bakoitzarekin.



03 martia martxo



25	26	27	28	1	2	3
4°	5	6	7	8	9	10
11 •	12	13	14	15	16	17
18	19°	20	21	22	23	24
25	26	27°	28	29	30	31

ilbehera

4

Astelehena

Loratuko ez den gauzak
Ilbehera lagun.

5

Martitzena

—Martxo txartxo garagartxo,
orain ez nauk hire beldurtxo!

6

Eguaztena

Bi txori ttiki zopa jatera:
batak pirpir, besteak porpor.
ama, biei begira, maitekor.

J.K. Igerabide

7

Eguena

Martxoan lainoa noraino,
apirilean elurra haraino.

8

Barikua

Egunak badu
nondik lotu.

Emakume
langilearen
eguna

9

Zapatua

Eguzkia eta euria,
martiko eguraldia.

10

Domeka

Martxoko elurra,
ura.



25	26	27	28	1	2	3
4°	5	6	7	8	9	10
11 •	12	13	14	15	16	17
18	19°	20	21	22	23	24
25	26	27°	28	29	30	31



11

Astelehena

● iretargi barria

Loratu behar den gauza
ilberrian barrura.



12

Martitzena

Toko-toko-toko-tok, okila kantetan,
zir-zir-zir, euria atetan.



13

Eguaztena

Eguzkia eta euria,
martiko eguraldia.

14

Eguena

Martxoan arrautza
eta martxoan txita.

15

Barikua

Martxoaren erdin,
gaua eta eguna berdin.

16

Zapatua

Martxoa, irri eta irri,
eguzkia keinuka niri,
lanbrora agurka haizeari.

Y. Arrieta

17

Domeka

Martxoa, irri eta irri,
txoria txorrotxioka amatxori,
katua miauka txakurrari.

Y. Arrieta



25	26	27	28	1	2	3
4°	5	6	7	8	9	10
11 •	12	13	14	15	16	17
18	19°	20	21	22	23	24
25	26	27°	28	29	30	31

18

Astelehena

Martxoa, irri eta irri,
elurrak urtuz, ziri-miri.

Y. Arrieta

 ilgora

19

Martitzena

Azokara, azokara:
erosiko dut ilargiaren zotina
eta izarren kriskitina.

J.K. Igerabide

20

Eguaztena

Lau haize dabiltza
nire bihotzean.

B. Atxaga

21

Eguena

Arrats urdina zeruan,
kukua dantzan, basoan,
bihotzak poztuz, hotzak berotuz,
udaberria airean.

Y. Arrieta

22

Barikua



UDABERRIA

Sehaska dute belarrezko
eta zerua beharrezko.

Kantatzen dute alai
banaka eta hamarnaka ere bai.

J.K. Igerabide

23

Zapatua

Txin-txin, txoria
txori txiribiltaria
zaku, miku
zaku, soka,
zaku, miku
kukuka.

Y. Arrieta

24

Domeka

Martxoaren azken aldetik
San Pedro bitartean
Hotsaten duzu kukua
zuhaitzen adarretan,

ku-ku, ku-ku,
ku-ku, ku-ku,
bakarrik eleketan.

X. Olaso



25	26	27	28	1	2	3
4°	5	6	7	8	9	10
11 •	12	13	14	15	16	17
18	19°	20	21	22	23	24
25	26	27°	28	29	30	31

25

Astelehena

Martiaren hogeita bostean
Erromako zubitik dator kukua.

26

Martitzena

Kukuak kuku eta dirua sakelan,
aberatsa urte guztian.

27

Eguaztena

☐ iretargi betea

Janzten naiz zilarrez
osorik, erdizka edo batere ez.
Argi egiten dut
nahiz neurez argirik izan ez.



28
Eguena

Kuku miku, kuku miku
kukuak umeak egin ditu.

Non eta non?

Zuhaitzaren adarrean
eta zirina amonaren bizkarrean.



29
Barikua

Kuku miku, kuku miku
kukuak umeak egin ditu.

Non eta non?

Zuhaitzaren puntan

eta zirina aitonaren sudur puntan.



30
Zapatua

Zozomikoteak heldu dira.



31
Domeka

Bete dira zuhaitzak txoriz;
larri dabilta lotarako tokiz.

Zuhaitzak txoriz bete dira:

ez jarri parean gora begira.

J.K. Igerabide



04 apirila jorraila

Euria

Heze-heze
busti-busti
euri-euri.
Pareta zulotik
atera dira luxe-luxe
antena bi.
Zeruak negar
barraskiloak irri.

Txori kantariak, poeta hegalaria.
Joxan Ormazabal.
BERRIA, 2003

Apiril izenak zabaltzearen esanahia dauka, hilabete honetan baso eta landak berriro ere bizirik agertzen direlako.

Baina, apirilari jorrraila ere deitzen zaio, soroak jorratzeko garaia delako.

Guk zerura begiratu eta ohartu gara apirilak euria ekarri ohi duela sarritan, nahiz eta ez jakin zer egingo duen aurtengoan.

Bitartean, baina, imajina dezagun apiril euritsu, busti-busti bat, olerkiak erakusten digun moduan.

Egoera antzez dezakezue hiru une bereiziz edo, nahiago baduzue, une bakoitza deskriba dezakezue, ahoz nahiz idatziz:

- 1** Euria ari du eta dena bustita dago. Eta ni non nago?
- 2** Antena luze bi atera dira pareta zulotik. Nondik ikusten ditut? Nola nago? Zertan nago?
- 3** Euripean, barraskiloa barreka. Zer eragiten dit horrek niri?



04. apirila jorraitia



1	2	3°	4	5	6	7
8	9	10•	11	12	13	14
15	16	17	18°	19	20	21
22	23	24	25°	26	27	28
29	30	1	2	3	4	5



.....

.....

.....

.....

Apirileko lorea,
urrea baino hobea.

.....

.....



.....

.....

.....

.....



Euri-jasak
hondartza
basamortu bilakatu du.
A. Urkiza



❶ ilbehera

.....

.....

.....

Autobuseko kristalean
utziko dizut mezu umel bat
atertutakoan irakur dezazun.

L. Bilbao

.....

.....

4

Eguena

—Udaberriko lore ederra
non izan zara neguan?

—Elur zurien beldurragatik,
sarturik zelai barruan.

5

Barikua

Zerua malkotan negarrez
triste eta goibel
begi ilun nabarrez.

A. Kazabon

6

Zapatua

Apirila bero,
negua gero.

7

Domeka

Apirila hotz,
ez gari eta ez ahotz.



1	2	3°	4	5	6	7
8	9	10•	11	12	13	14
15	16	17	18°	19	20	21
22	23	24	25°	26	27	28
29	30	1	2	3	4	5



8
Astelehena

Haizeak esan dit:
 —Laster euria!
 Korrika ezkutatu dira
 armiarma eta eulia.
 A. Kazabon



9
Martitzena

Ortzadar argia
 ortzadar bustia
 zubian ezkondu
 ekia eta euria.

P. Añorga



10
Eguaztena

● iretargi barria

Gauak mantaz estali du
 ilargi berria
 hoztu ez dadin.
 Y. Arrieta

11

Eguena

Tantarik tanta
euriak kanta
hodeia zutik
eta erreka etzanda.

P. Añorga

12

Barikua

Apirileko egunak
hiru aro.

13

Zapatua

Jaiotzen naiz goraka
hodei bihurtu arte;
hiltzen naiz beheraka
baina bizirik nago hoztu arte. (euria)

J.K. Igerabide

14

Domeka

Apirila euritsu,
urte hura ogitsu.



1	2	3°	4	5	6	7
8	9	10•	11	12	13	14
15	16	17	18°	19	20	21
22	23	24	25°	26	27	28
29	30	1	2	3	4	5

15

Astelehena

Astelehen kukurruku,
oilarrak eztul egin du,
txepetxak arrautza jarri eta
Maitanek autobusa galdu du.

Y. Arrieta

16

Martitzena

Euri ziri,
euri miri,
atertu barik.

17

Eguaztena

Apirila bero,
negua gero.

R.M. Azkue

18

Eguena

Hodei leunetan
ilargia jostari,
laztanik laztan.

X. Olaso

19

Barikua

—Apiril, borobil,
zer nahi duzu bil?

—Negua eta uda
ez daitezen hil.

Y. Arrieta

20

Zapatua

—Apiril, borobil,
zer utziko guri?

—Lurra busti-bustia
eta lore pinportatxo bi.

Y. Arrieta

21

Domeka

—Apiril, borobil,
zertan ari zara hain isil?

—Zerua ureztatzen,
eguzkiak egiteko dir-dir!

Y. Arrieta



1	2	3°	4	5	6	7
8	9	10•	11	12	13	14
15	16	17	18°	19	20	21
22	23	24	25°	26	27	28
29	30	1	2	3	4	5

22

Astelehena

Kukumiku, kukumiku,
euritan blai bi triku.

J. Ormazabal

Liburuaren
eguna

23
Martitzena

Mintzo naiz isilik
aho asko irekirik;
entzuten nauzu begitik,
mintzo nauzu zeure eskutik. (liburua)

J.K. Igerabide

24

Eguaztena

Euri-jasa.

Euri tanta guztiak alai:
batek ez du jaitsi nahi.

J.K. Igerabide

○ iretargi betea

25
Eguena

Hirurak ote dira?
Laurak, agian?
Begira ezazu ordua
ilargi betean.

X. Olaso

26
Barikua

Euria zaldi gainean doa:
itzuliko ote da?

J. K. Igerabide

27
Zapatua

Aterkira biltzen da euria
zakarrera bezala eulia.

X. Olaso


28
Domeka

Aterkiz tindaturik dator euria
espaloian behera.

X. Olaso

Hilabete honetan betetzen dira orri eta lorez gure zuhaitz eta landareak. Lurra berpiztu egin da, kolorez bete dira bazterrak eta, ondorioz, sasoi polita da aspaldiko lagunekin bat egin eta, olgetan-benetan, geure inguru berritura begiratzeko.

- 1 Ausartzen zara hilabete honetarako propio asmatu dugun olerkiari beste hiruzpalau lerro gehitzen?
- 2 Eskatu aholkua zure lagunei eta etxekoei. Zergatik ez?



05 maiatza

loraila

Badakizu? Heldu da maiatza,
jantzi da kolorez balkoiko landarea,
ortuko arrosak pinporta bi ditu, jada.

Badakizu? Habia bat egin dute
txoriek etxe aurrean,
gelako leihotik ikusi dut txori ama,
mokoan adarra daramala.

Gauza bat egin dezakegu, bai?
Arbolara igoko gara, eskuko eskailera hartuta,
ea arrautzarik ba ote dagoen barruan.

Gero bizikletan joango gara parkera,
tximeleta tirtirinak bagina bezala.

Ez dakit dakizun baina
heldu da maiatza.

Yolanda Arrieta



05. maiatza loraila



29	30	1	2°	3	4	5
6	7	8	9	10°	11	12
13	14	15	16	17	18°	19
20	21	22	23	24	25°	26
27	28	29	30	31°	1	2

29

Astelehena

Atertu du, atertu,
atertu du euria.

Eguzkiak xukatuko du
neguaren zauria.

A. Kazabon

30

Martitzena

Apirilaren azkenean,
hostoa haritz gainean.

1

Eguaztena

Goizean

nire margoen estutxetik
ihesi joan zaizkit basorantz
gorria, zuria eta urdina.

J. Suarez

2

Eguena

Ilargi-milargi,
ilargi kuxkuxero,
urrun zaude, gero!

X. Olaso

3

Barikua

Hasiera lur
noizbaiteko lore
gaur eder, galant, dotore
kolore, usain, zapore.

4

Zapatua

Begiak barrez barrez
kokotsa negarrez;
halaxe egoten zara, maitea
esnea edanez, ai, ai, ai;
halaxe egoten zara, maitea
tantaka irribarrez.

J.K. Igerabide

8

Domeka

Olagarroaren erro errea
larra errean gora.
Olagarroaren erro errea
larra errean gora.



29	30	1	2°	3	4	5
6	7	8	9	10°	11	12
13	14	15	16	17	18°	19
20	21	22	23	24	25°	26
27	28	29	30	31°	1	2



Maiatz eurite, urtea ogite;
hotza eta luzea, akabo gure laborea.



Maiatzeko zazpi egun,
zazpi hilabeteren lagun.



Maiatzean kukuak kuku,
diruz banitu bi zaku.

9

Eguena

Tximeleta bat kantari
hegalezko ezpaineekin;
zuhaitzak begira
eta hostoak txaloka.

J.K. Igerabide

10

Barikua

● iretargi barria

Lo goxoak izan dagizuzan
ilargia zelatan duzu.

X. Olaso

11

Zapatua

Maiatz hotzak
dakartza pozak.

12

Domeka

Hamabi,
altzo bete madari.



29	30	1	2°	3	4	5
6	7	8	9	10°	11	12
13	14	15	16	17	18°	19
20	21	22	23	24	25°	26
27	28	29	30	31°	1	2

13

Astelehena

Irriak negarrari:

—Zoaz, hemendik alde!

Mundua politagoa da

zu gabe.

A. Kazabon

14

Martitzena

Negarrak irriari:

—Entzun, arren, nire berria:

askoz gozoagoa da

negarraren ondoko irria.

A. Kazabon

15

Eguaztena

Nahi duenak jakin,

geroztik gurekin dira

biak elkarrekin.

A. Kazabon

16
Eguena

Maiatza,
urte guztiaren ardatza.

17
Barikua

Martxoak maiatzean badu,
maiatzak martxoetan du.



ilgora

18
Zapatua

Ortuellako **jaiak**

Ilargiaren atzean
ezkutaturik
hodei lotsatia.
J.K. Igerabide

19
Domeka

Zeru eta baratzte,
margoei begira egunero nago.
Orixo



29	30	1	2°	3	4	5
6	7	8	9	10°	11	12
13	14	15	16	17	18°	19
20	21	22	23	24	25°	26
27	28	29	30	31°	1	2

20

Astelehena

Maiatzeko sagar lorea,
hutsa baino hobe.

21
Martitzena

Maiatza, lore adatsa,
txepetx kumeak hegalari,
larrosa dantzari leihoari.

Y. Arrieta

22

Eguaztena

Maiatza, lore adatsa,
kolonia usaina belarrari,
marrazki handi bat tximeletari.

Y. Arrieta

23
Eguena

Maiatza, lore adatsa,
soineko berria zelaiari.

Y. Arrieta

24
Barikua

Asteak bere ostirala.

○ iretargi betea

25
Zapatua

Gu nora,
ilargia hara.

Y. Arrieta

26
Domeka

Lotan den une gozoa
lagun iratzarriz,
ku-ku!

B. Gandiaga



29	30	1	2°	3	4	5
6	7	8	9	10°	11	12
13	14	15	16	17	18°	19
20	21	22	23	24	25°	26
27	28	29	30	31°	1	2

27

Astelehena

Maiatzeko lorea
udaren florea.

28

Martitzena

Erlea lanean,
lorea denean.

29

Eguaztena

Erle uxatuak
eztirik ez.

30
Eguena

Bere erratza pasa du kometak zerutik:
oskarbi.

J.M. Irigoien

31
Barikua

● ilbehera

Sorginak kalejiran,
ilargi erdi,
gainean.

1
Zapatua

Bagil argia,
urte guztiko argia.

2
Domeka

Urdinez
margotuko dizut
begirada
zuriz isiltasuna
berdez

gorriz
horiz...
zure edertasuna.
Ene ostadarra zu.

J. Ormazabal

06 bāgila ekaina

Itsuak ikusi du
etxea erretzen
hanka-motzak badaki
bideak korritzen;
mutua deiadarka
jendeari deitzen
gorra ere han zegoen
guztiak aditzen.

Ipuinen tailerra.
Seve Calleja & Antton Irusta.



Batzuentzako garagarri hiru hilabete hau, oraintxe dugulako garagarri gure landetan. Baina antza denez, hilabete hau deitzeko izenik zaharrena bagira dugu, hau da, baba-hila.

Guk Naturaren berpizkundea ospatu nahi dugu eta horregatik aukeratu dugu poema bitxi hau, pozik gaudenean ohiko gauza normalenak ere beste era batera imajinatzeko gai garelako.

- 1 Lau momentu ageri dira olerkian, zein baino zein bitxiagoak. Ausartzen zarete une horiei bizia ematen?
- 2 Binaka jarrita, bikote bakoitzak une bat prestatu lagunaren aurrean erakusteko.
- 3 Lagunek igarri egin behar dute olerkiko zein egoera agertzen ari zireten.
- 4 Bikote berberak asmatu antzeko egoera bitxi bat eta agertu kei-nuz eta hotsez lagunaren aurrean. Lagunek egoerari izen bat jarri beharko diote, olerkiko beste bertso bat balitz bezala.





27	28	29	30	31°	1	2
3	4	5	6	7	8*	9
10	11	12	13	14	15	16°
17	18	19	20	21	22	23°
24	25	26	27	28	29	30°

3

Astelehena

Ekaina, alaia,
emaiguzu musu bana,
eta bihurtu argi
egun andana.

Y. Arrieta

4

Martitzena

Ekaina, alaia,
entzuiguzu, baina!

Y. Arrieta

5

Eguaztena

Bost,
belarrian koxk!

6

Eguena

Batek arrosaren kolorea maite,
bertzeak usaina.

7

Barikua

Batekoz beste,
kukua euri eske.



iretargi barria

8

Zapatua

Ortzi gauean
izar artean
argi dagi ilargiak,
bere izpiak
ilun daude
begitxo horien aldean.
Lo...

9

Domeka

Ondo ibili,
gitxi gastau
eta bueltak amari.



27	28	29	30	31°	1	2
3	4	5	6	7	8*	9
10	11	12	13	14	15	16°
17	18	19	20	21	22	23°
24	25	26	27	28	29	30°



Utzi
argi egiten
zeure barruko
eguzkiari.
J. Ormazabal



Hazitik dator landara.



Amuarrainak begi bi,
sei ezkailuk hamabi.
J. A. Mogel

13
Eguena

Kukuprakak deitzen zirela
akordatzen naiz, lore batzuk.

J. Sarrionaindia

14
Barikua

Hara bi:
zu bat eta bestea ni.

15
Zapatua

Poxpoluak behin bakarrik erretzen direla
akordatzen naiz, egunak bezala.

J. Sarrionaindia

16
Domeka

● ilgora

Eguzkiak oparitu dio zeruari
pitxia.

Afaritan erakutsi du ilargiak
papparreko berria.

A. Urkiza



27	28	29	30	31°	1	2
3	4	5	6	7	8*	9
10	11	12	13	14	15	16°
17	18	19	20	21	22	23°
24	25	26	27	28	29	30°

17

Astelehena

Ekaina eder,
uda halaber.

18

Martitzena

Berbak jaio, bizi eta gero zimeldu
egiten direla akordatzen naiz.
Gero berriro berdetzeko.

J. Sarrionaindia

19

Eguaztena

Eta zerua urdintzen denean
bete zeure burua
eguzkiz
bete zeure burua
ilargiz.

J. Ormazabal

20
Eguena

Udazkenaren aurreko,
udaberriaren osteko,
eguzkia eta beroa
izan ohi ditu aldeko.

X. Olaso

21
Barikua



UDA

Mendi haizea oinetan,
kresal usaina praketan,
oporrak egun bero bihurtuz,
UDARA amets betean.

Y. Arrieta

22
Zapatua

San Joan berde, San Joan berde,
garitzak eta artoak gorde,
sorginak eta zapoak erre,
biba San Joan berde.

23
Domeka

☐ iretargi betea

Bart arratsean leihotik
sartu zait ilargia,
eta bertatik bertara
ikusi diot aurpegia.

A. Kazabon



27	28	29	30	31°	1	2
3	4	5	6	7	8°	9
10	11	12	13	14	15	16°
17	18	19	20	21	22	23°
24	25	26	27	28	29	30°

24

Astelehena

San Joan egunean,
eguzkiak dantza goizean.



Muskizko **jaiak**

25

Martitzena

Maiatza pardo,
bagila klaro.

26

Eguaztena

Egun luze,
olgeta luze.

27
Eguena

Gora goraka
ekia erre,
ekia erre,
behera beheraka
uretan sartuta
ekia urre.
P. Añorga

28
Barikua

San Joanetan kuku,
San Pedrotan mutu,
txoriaren izena
arestian aipatu.

X. Olaso

29
Zapatua

Munitibar, Mundaka,
Galdames eta Turtziozko **jaiak**

Hogei astez kuku,
San Pedroetan mutu.

30
Domeka

● ilbehera

Amaraunetik zintzilik
ilbehera:
orduak badoaz aurrera.

X. Olaso

ABCD berri bat. Yolanda Arrieta.

MEZULARI, 2011

Aitatxo bilin-bolon. Gianni Rodari.

EREIN, 1994

Akordatzen. Joseba Sarrionaindia.

TXALAPARTA, 2004

Armiarma zuhaitzean. Antton Kazabon.

AIZKORRI, 2004

Auskalo! Igarkizun eta

aho-korapiloak. Xabier Olaso. PAMIELA,

2001

Bazen behin, behin bazen. Antton

Kazabon. ELKAR, 1995

BEGIRA BEGIRA. Askoren artean. ELKAR,

2006

Denboraren kanta-kontuak. Yolanda

Arrieta. SM, 1995

Egun osorako poemak eta beste. Juan

Kruz Igerabide. PAMIELA, 2005

Ezkatak. Leire Bilbao. SUSA, 2006

Hamabi titare. Karlos linazasoro. Aizkorri,

1999

Haur korapiloak. Juan Kruz Igerabide.

PAMIELA, 1997

Hiztegi jolastia. Joxantonio Ormazabal.

ELKAR, 2002

Hosto gorri, hosto berde. Juan Kruz

Igerabide. ATENEA, 2002

Ilargia ezpainetan. Juan Kruz Igerabide.

EREIN, 2006

Ilbetea dilindan. Jon Suarez.

PAMIELA, 2002

Ilunorduak eta argilaurdenak.

Joxantonio Ormazabal. ELKAR, 2007

Ipuinen tailerra. Seve Calleja & Antton

Irusta. LABAYRU, 1999

Irri eta barre. Joxantonio Ormazabal.

ELKAR, 2002

Irrikaren distira. Antton Kazabon.

PAMIELA, 2006

Ízozmendiak. Juan Ramon Madariga.

SUSA, 2003

Jiran-biran. Pello Añorga. AIZKORRI, 1998

Kalezuloko animalien itzalak. Lutxo

Egia. PAMIELA, 1999

Marinel zaharrak.

Joseba Sarrionaindia. ELKAR, 1987

Metak eta kometak. Juan Mari Irigoien.

ELKAR, 1994

Nire hiriko poemak. Ana Urkiza.

PAMIELA, 2006

Orbel zaku bat. Jon Benito. SUSA, 2003

Pupuan trapua. Xabier Olaso. PAMIELA,

2004

Sekretuak belarrira. Ruben Ruiz.

AIZKORRI, 2007

Zaldiko-maldikoan. Zenbait autore.

AIZKORRI, 2003

Zer da, ba, maitasuna? Miren Agur

Meabe. ELKAR, 2008

Zuni. Pello Añorga. AIZKORRI, 2006



FOLKLOREA

Aizak eta aizan, elkarrekin dantzan. Anjel Lertxundi. ELKAR, 2002

Urrezko giltza. Patxi Zubizarreta. EREIN, 2005

Axa mixa zilarra. Jesus Mari Olaizola Txiliku. ELKAR, 2000

Euskalerriaren yakintza. I. Resurrección Maria de Azkue. EUSKALTZAINDIA & ESPASA CALPE, 1989

AINTZINAKOAK

Ipui onak. Bizenta A. Mogel. AUSPOA, 1963

Litterae vasconicae. Euskeraren Iker Atalak-9. LABAYRU, 2004

Dantza-kopla zaharrak. Jabier Kaltza-korta Elorza. LABAYRU, 2007



POEMAK SAREAN

<http://www.susa-literatura.com/>

HILABETEEN IZENAK

<http://www.bizkaiera.biz/index.php?id=108>

ESAERAK


http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/auspoa/10985.pdf

<http://www.bizkaiera.biz/index>

ATSOTITZAK URTEAN ZEHAR

<http://ibarrasanbartolome.com/documentospdf/AtsotitzakUrteanZehar.pdf>









ohararak



telefonoak

urtebetetzeak



BALMASEDA

Mendia HLHI

Enkarterri etorbidea, 2

48800 BALMASEDA

Tel.: 94 680 02 76

cepmendia@euskalnet.net

Zubi Zaharra Ikastola

Aldapa, 56

48800 BALMASEDA

Tel.: 94 610 30 95

balmaseda@zubizaharra.com

BERMEO

San Frantzisko Herri Ikastetxea

Atalde, z/g

48370 BERMEO

Tel.: 94 602 99 25 (Idazkaritza)

Tel.: 94 688 04 77 (Zuzendaritza)

Faxa: 94 602 99 26

014923aa@hezkuntza.net

<http://sanfrantziskobermeo.ikastetxea.net>

Eleizalde Ikastola

Arane auzoa, 6

48370 BERMEO

Tel.: 94 618 75 93

Faxa: 94 618 77 25

bermeo@ikastola.net

www.eleizaldeikastola.net



ikastetxeak

ELORRIO

Txintxirri ikastola

San Pio, 3
48230 ELORRIO
Tel.: 94 658 27 13
elorrio@ikastola.net

Lourdesko Ama ikastetxea

Lourdes etorbidea, 8
48230 ELORRIO
Tel.: 94 682 00 56
lourdeskoama@hotmail.com

Elorrio Herri ikastetxea

San Roke, 12
48230 ELORRIO
Tel.: 94 658 20 12
014258aa@hezkuntza.net

ENKARTERRI

Angel Larena LHI

Lehendakari Agirre, z/g
48879 ARTZENTALES
Tel.: 94 680 92 95
014026aa@hezkuntza.net

Eduardo Eskartzaga LHI

Jose Antonio Garay Eguia, 3
48192 GORDEXOLA
Tel.: 94 679 98 47
014285aa@hezkuntza.net

Concha LHI

Concha, 49
48891 KARRANTZA HARANA
Tel.: 94 610 71 47
014232aa@hezkuntza.net

Avellaneda HLBHI

Gallarraga, 24
48830 SODUPE
Tel.: 94 669 23 28
zuzendari@avellaneda.org

Eretza LHI

Padura, z/g
48830 SODUPE
Tel.: 94 669 20 74
014303aa@hezkuntza.net

San Viator LBHI

San Cristobal, 2
48190 SOPUERTA
Tel.: 94 610 48 00
secretaria@sanviator.com

Jose Sierra LHI

Lehendakari Agirre, 43

48880 TURTZIOZ

Tel.: 94 680 92 37

014447aa@hezkuntza.net

Maristas-San Miguel HLBHiP

J.A. Agirre Lehendakaria, 12-14

48860 ZALLA

Tel.: 94 639 00 29

zalla.secre@maristasiberica.es

Mimetiz LHI

Euskadi Plaza, 3

48860 ZALLA

Tel.: 94 667 04 31

014459aa@hezkuntza.net

ERANDIO

Goikolanda ikastetxea

Avanzada errepidea, 14

48950 ERANDIO

Tel.: 94 453 30 39

014470aa@gmail.com

Ignazio Aldekoa ikastetxea

Meso, 37

48950 ERANDIO

Tel.: 94 417 50 99

014471aa@hezkuntza.net

Altzaga ikastola

Kukularrabidea, 8

48950 ERANDIO

Tel.: 94 467 17 05

014560aa@hezkuntza.net

Jado-Compasión ikastetxea

Tartanga, 13

48950 ERANDIO

Tel.: 94 467 25 58

jadocompasion@planalfa.es

ETXEBARRIA

Manuela Zubizarreta ikastetxea

Erbera, 25

48277 ETXEBARRIA

Tel.: 94 616 81 59

Faxa: 94 616 74 77

014256aa@hezkuntza.net

MUNDAKA

Mundakako Eskola Publikoa

Agirre lehendakaria enparantza, 1

48360 MUNDAKA

Tel.: 94 687 65 65

Faxa: 94 687 65 65

014361aa@hezkuntza.net

MUNITIBAR- ARBATZEGI- GERRIKAITZ

Munitibarko Herri Eskola

Herriko Plaza, 7
48381 MUNITIBAR
Tel.: 94 616 53 00
014025aa@hezkuntza.net

MUSKIZ

Muskizko ikastola

Errota zahar, 1
48550 MUSKIZ
Tel.: 94 670 78 73

Cantarrana Herri Eskola

Memerea, 12
48550 MUSKIZ
Tel.: 94 670 60 59

MUXIKA

Urretxindorra Herri Eskola

Kurtzero, 41
48392 MUXIKA
Tel. eta faxa: 94 625 12 81
014356aa@hezkuntza.net

ORTUELLA

San Felix ikastetxea

Lasagabaster Etorbidea, 1
48530 ORTUELLA
Tel.: 94 664 02 30
sanfelixikastetxea@sanfelix.org



ikastetxeak

Sustatzaileak:



Euskara Zerbitzua
www.balmaseda.net



www.bermeo.org



Euskara Zerbitzua
www.elorrio.net



Euskara Zerbitzua
www.erandio.net



Enkarterriko Udal Mankomunitatea
Euskara Zerbitzua
www.enkarterri.org



Etxebarriko Udala
Euskara Zerbitzua
www.etxebarriz.biz



Mundakako Udala
Euskara Zerbitzua
www.mundaka.org



Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaizko Udala
Euskara Zerbitzua
www.munitibar.org



Muskizko Udala
Euskara Zerbitzua
www.muskiz.org



Muxikako Udala
Euskara Zerbitzua
www.muxikakoudala.com



Ortuellako Udala
Euskara Zerbitzua
www.ortuella.biz



Zierbena
Udala - Ayuntamiento
Euskara Zerbitzua
www.zierbena.net



Babesleak:



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako
Saiburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de
Política Lingüística



Testuak aukeratu eta jokoak asmatu: Yolanda Arrieta / Ilustrazioak: Enrique Morente / Diseinua: biko komunikazioa